

# KOSMODROMO

(IPUIN BILDUMA)

KOSMOPROMO

(GELER BILDUMA)

Azala: Surat

HARANBURU EDITOREA, S. A.

Askatasunaren Hiribidea, 1, 1.º-A

DONOSTIA

I. S. B. N.: 84 - 7407 - 216 - 6

Legezko Gordailua: 740/84

Inprimatzaile: IZARRA Inprimategia

36. Industri Poligonoa - Usurbil

TXILLARDEGI

# KOSMODROMO

(IPUIN BILDUMA)

## LAU IPUIN HAUEN INGURU-GIROAZ

*Aspaldisko honetan Hizkuntzalaritzaren eta Soziolinguistikaren iker-alorrak nire luman eta arretan ardatz eta gai nagusi bihurturik, ahantzita neuzkan neure ipuinak. Hauetako batzu, oso aspaldian izkiriaturuz geroztik, ezta behin ere berrikusiak ez nituelako. Eta beste batzu, berriz, inoiz argitara ez emanik, paper zaharren artean hautsez beterik amairik gabeko lozorroan zeutzalako.*

*Hemendik eta handik bilatu ondoren, beraz, begi aurrean dituzun lau ipuin hauek hautatu ditut; eta idatzi nituen beren hartantxe joan dira moldiztegira. Gure literaturgintza, are gure idaz-mintzaira bera ere, prozesu edo bilakabide batetan barrena ikusi behar direla agertuko da garbikiago. Urteetan zehar, denek aldatu gara mamiz, tankeraz eta hizkeraz; eta ipuin hauen egilea ere bai.*

*Liburuska honetan elkaturik aurkitzen dituzun lau ipuin hauek, ez dira oso berdinak. Bi zaharrenak (27 urte ditu lehendabizikoak) eta «berriena» (nahiz batere «berria» ez izan, 15 urte dituelarik), antzekoak dira, bai,*



*nolazpait; eta multzo berean sailka bide litezke. Hirugarrena, aldiz, Eta ez ziren sekula itzuli delakoa, desberdina da. Lehenengo hirukoetan, kondairak dakarren ideia nagusia nabarmen xamar agertu arren, zeharbidez baizik ez du irakurleak mezu hori jasotzen. Laugarrenean, alderantziz, gertakarien muina eta ikaskizuna garbi agertzen dira; garbiegi beharbada, gaur egun ni beldur. Eta lehenengo hiruretan sinboloen atzean zerbait bila badaiteke ere, laugarrenean bigarren mailako irakurketarik ez da behar: istorioa hor dago, eta esanahia ere bai.*

*Azter ditzagun banaka, eta laburki bederen.*

Orangutanen ugartea delakoan, geroztik oso modan egon den kezka da kondairaren ardatza: alegia, gizonaren aberetasuna (edo alimaletasuna, zehazkiago hitz egitekotan) gauza nabarmena dela, izkutatu ezina, gainditu ere ezinezko baldintza; eta gure gizatasuna, eta honi dagozkion giza-bertuteak, axal mehe-mehea baizik ez direla. Hots, gizona orangutanaren anaia bizkia eta hurbila baldin bada (eta ideia hau beste askotan ere agertu da nire artikulu eta liburuetan), gure hilezkortasunaren esperantzak, erokeria bihurtzen dira, eta orobat giza-leinuaren gailentasun famatu hori. Eta, beste muturrean, ekonomisistema aldatuz gero, gizona aingeru laiko eta gizarte-saindu prestu omen dela (edo izango omen dela) bide, lurgaineko zerua hortxe heldu dela-ta, errotik zaharrakatzen eta funditzen da; eta mundu zoriontsu eta zuzenaren mitoak ere errausten. Hau esatea, ordea, are pentsatzea ere, oso arriskugarria izan da gure artean (oraindik ere arris-

*kugarria ez bada...).* Horixe agertu zen Joxe Azurmendi-k bere «Gizona abere hutsa da» mamitsua, «Lazkano Mendizabal»en gaitzizenez, xebetason adierazgarria, argitara zuenean. «Anatema sit» ... Ene ipuin hori, beraz, katolizismo ofizial eta indartsuaren garaian idatzita, beldur horren lekuko eta irudi izan daiteke; baita geroago ezagutuko genuen mitoaldiaren aurre-salatzaile.

Piarres gaxoaren pasadizuak ipuin laburrak, berriz, Euskal Herria eta euskara bera dauzka ardatzat. Memen-toko egoeraz eta etorkizunaz garai hartan giro «abertzale»etan entzun obi ziren burugabekeriek nardaturik, gure herriaren azterketatik abiatu beharra azpimarratzen zuen ipuinak.

Bai ipuin hau (1958-koa), eta bai aurrekoa (1957-koa), Donostia-ko EGAN aldizkarian agertu ziren lehenengo aldiz; baina gaur egun gure artean ez-ezaguntzat jo daitezke.

1961-an gertatu zitzaidan ezinbestezko deserriraketa eta istiluen ondorioz, agortu egin bide zen nigan ipuin-gintzarako gogoia; eta, oker ez banago, ez nuen 1968-ra arte ipuin berririk batere idatzi.

Bruselan bizi nintzen garai hartan; eta bai BRANKA atzerri hartan argitaratzekotan, bai bestelako arazoetan ere, flandretar abertzaleen harrera ona eta laguntza topatu nituen hasera haseratik; aste hauetantxe ere Iparraldeko aberkideek Baiona-ko hauzitegian aurkitu duten bezala. Politika hutsezko ikusmoldeetan eta projektuetan gu-

rekin beti ados ez izanik ere, Antwerpen-go Valère Depauw adiskidea gailendu zen denen artean. Harremanak zituen Depauw-ek herri zapalduetako abertzale askorekin (ez euskaldunekin bakarrik, alegia). Eta burutazio hau izan zuen halako batez: lau nazio zapalduetako idazle bana hautatu behar zirela; eta, batera argitara behar zirela, egurrezko kaxa zabal batetan aurkezturik. Flamenkeraz, lauak, hasteko; eta gero beste hiruetan.

Vlanderen (Flandes), Breizh (Pretainia), Cymru (Gales) eta Euskal Herria hautatu zituen, beraz; eta, ilara horretxen arauera, lau idazleri eskatu zigun ipuin bana: bere buruari eskatu zion lehenengoa; deserrian bizi zen Roparz Hemon bretoindarrari bigarrena; Cymru-ko Kate Roberts andereari, hirugarrena; eta lerro hauek orain idazten dituen euskaldun honi, laugarrena. Hasteko, gure hirurak itzul erazi zituen flamenkerara (nirea barne, frantsesez prestatu nion itzulpenetik). Eta, zurezko kaxa bitxiak prestatu ondoren, lau liburuskak barnera sartu, eta salmentan jarri zituen Flandretan.

Valère Depauw-ek (gero ETA-ri buruz idatziko zuen nobela baino lehenago, beraz), Aita Dominique Pire Nobel-Sariaren hitzaurre batez horniturik, «Een handvol aarde» ipuina idatzi zuen (euskaraz, «Lur-aburtara bat»). Roparz Hemon-ek, berriz, «Baejour ar Goañv» ipuina bidali zuen. Kate Roberts andereak, bere aldetik, hiru ipuin labur eskaini zizkion: «Marwolaeth stori», «Te yn y grug» eta «Ymwelydd i de» delakoak (egia esan, izenpuru horiek nola itzul daitezkeen ez dakit orain). Eta nik,

*azkenik, neure* Eta ez ziren sekula itzuli hau eman nion Depauw-ri (flamenkeraz, «Niet een keert terug» izenpuruaz agertua). Halabeharrez, pittin bat laburtua eta abuldua azaldu zen, nik uste; baina hiru nazio-bizkuntza ukatu horietan ezagutarazia izateko esperantzan, ohoraturik.

Oker ez banago, ordea, dirurik eza dela-ta, flamenkeraz baizik ez ziren lan horiek agertu; eta, alde horretatik, nire ipuin hau argitaragabea dela esan daiteke. Ipuinean barrena Iparraldeko egoera (ordukoa batez ere) azaltzen da. Ezer gutxi asmatu behar izan nuen hango egoera beztutzeko; giro anti-abertzale suhar horrek gazte batzu gaur harrituko baditu ere.

Eta laugarren ipuina, eta bilduma honetan azkena, Kosmodromo deritzona, irakurleak berehala soma deza-keenez, «Apolo» eta Armstrong-en bidaiaren ondo-ondoan idatzia izan zen. Ameriketarrak ilargira iristean, halako baikorkeria inozoa zabaldu zen bazterretan: izarretarako bidea irekia zela, Colon-en ekintzaren aurrean ginelat, eta abar. Eta ipuinak, ironi bidez, esperantza ero haiek astindu nahi zituen.

*Bi ipuin hauek, dena dela, Bruselan idatzi nituen.*

*Eta besterik ez dut erantsiko. Lan xume hauek Euskal Literaturan lagungarri gerta badaitezke, ni pozik. Eta irakurlea ere bai.*

*Hortaz, zer besterik?*

Txillardegi

Donostian, 1984-ko Ekainean.

ORANGUTANEN  
UGARTEA

(1957)

Joanes ura mariñel zaarra zan. Oso zaarra. Agian itsa-soa bera bezin zaarra...

Egun artan, maiz bezela, itsaso zabalari so zegoen, pentsakor, urruti artan begirada josirik zeukala, gazte-tango gertakariak gogora zekazkiela segur aski...

Milla tokitan egondako gizona zan, eta begiramentu aundia zioten argatik bere errikide guziak. Gañera, eskolatua izan ez arren, ba-omen zekien itsasoko gaiez kanpo ere gauza askoren berri.

Zenbat ekaitz ez ote zituen ark jasan? Zenbat trumoi ez ote gainditu? Berak ere ezin esan. Baña larruan igar zekiokan itsaso-arazoetan Joanes nor izan zela.

Garai artako kai guziak ezagutu zituen Joanes'ek. Eta kairik etzegoen bazter asko ta asko ere bai. Nere ustez mundu guzia ezagutu zuen berak.

Ordurarte, kondaira guziak siñistu zizkioten beti. Egia esan, gauza bat ez beste guziak siñistu zituzten. Baña Joanes'ek kondatu oi zien ura etzeukan iñork siñisterik. Ura geiegitxo zan. Gañerako istorio guziak batek

ala bestek bere begiez ikusia ba zuen, ura, berriz, arrigarrina, geien iñarrosten zuen ura ain zuzen, iñork etzuen beñere konprobatu. Iñork ere etzuen bere bidaietan Joanes'ek ikusitako «Katzlahu» izaro madarikatu ura sekulan topatu.

Joanes'ek zionez, bera oraindik «Izargi» ontzian kapitain zelarik, ekaitz larri batek arrapatuta, errebelatu egin zan, galdu egin zan illunbe ito eta naastu artan; eta, eriosuar, errendi egiñik, bere burua eta ontzia galdutzat zeuzkala, bapatean, ziplo, dena baretu, zerua argitu, eta ugarte arrigarri batera iritxi omen zan.

Poztu omen ziran «Izargi»ko bere mariñelak. Azkene-ko, bizia galduta ikusi zutenean, ugarte ura arkitzea, ez ote zan alaigarri?

Joanes'i berriz lastu egin zitazkion illeak: eta itza aal zuen eta geiena goratuz, esan omen zien: «Ez bedi iñor jets orrera. Urtziak madarikatutako ugarte duzute ori. Goazen emendik ariñiketan. Emendik bereala ez ba goaz, gureak egin du. Goazen aguro. Leen baño okerrago gaude orain!!».

Txoratuta omen zirudien Joanes'ek. Bera, beti ausart izan zena otzikarak artuta omen zegoen. Baña, «zer delata?», galdetzen omen zioten mariñelak alkarri.

Begia borobil, tinko, igige, josirik. Ura ikara! Zer ote?

\* \* \*

«Auxe da», ixilpean omen zion. «Auxe da...!!! Auxe da «Katzlahu-Jin». Tokitan gaude, alajaña...! Eta, nola izan diteke? Nolatan iritxi ote gera oneraño? Emen dea-brukeriren bat gertatu da. Sorgiñak eta lamiñak oro nere aurka bide daude.»

Eta dardar asten omen zan berriz, begirada beti galduta zuela.

«Auxe da, bai. Nork ekarri ote gaitu onera? Nork? Berrogei egun bear genituen gutxienez oneratzeko. Ala... oker ote nago?» Eta au esatean pittin bat lasaitzen omen zitzaion itxura.

«Bañan... ez. Ez! Auxe da «Katzlahu-Jin». Ortxe daude bere dorre famatuak... Ez. Zoritxarrez ez nago oker.»

Eta, ortan zegoela, ontzi guzian karrasi bat asi, eta sekulan entzun ez den karrasia entzun omen zan. Eta karrasia ez omen zan eteten. Agertuak omen ziran orangutanak une artan zepa ta austerrezko idoi-plaia nazkagarri artara; eta Joanes'ek aapeka: «Oietxek dira!!!» Eta indar guziak bildurik deardaka: «Jainkoa: salba gaitzazu, arren!!!»

Zergatik ba bildur ura? Zer zuten ba dorre aiek? Zer orangutan aiek? Onatx korapilloa: Orangutanak berak eraikitako dorreak ziran begi-bistan zeudenak.

Orangutanak, berriz, izugarri baño izugarriagoak ziran. Gizonak omen ziruditen zearo: edozein kristau bezelaxe jantzita, ibillerak salatzen zituen bakarrik.



Argatik deitzen omen zuten ugartea «Katzlahu-Jin», euskeraz «Jainko-Orangutanen Ugartea».

Gizaki deitzeko tximuegi omen ziran, eta tximu deitzeko gizonegi. Gordeta omen zuten bere tximutasuna alde batetik; baña bestetik ere ondo nabarmen. Inguru aietakoak ziotenez pizti-begirada zuten, billo kalparra arpegi guzi guzian, eta begitartea illetsu. Dorreak berriz, eten gabe kea zeriela, tximiniak zirala pentsa omen ziteken; baña, bein ikusi ezker, ezin beste ezerekin naas: beetik gora zabalago egiten omen ziran, eta, erabat begiraturik, oindoak omen ziruditen, oindo itsusi eskergak. Dorre aietxek omen ziruditen bertako arbola bakarra; eta ango giro osoa ezagutu ezker, ez omen zegoen okertzetik: kirats eraman-ezin ura, orro sarkor ura, ura guzia, «Katzlahu» zan eskierki.

Oindotzarrak eta kea. Landarerik ez. Dena goibel, dena kedar, dena gogor, dena tristagarri... Ezin esan ala itsusi omen zan ura. Itsasoa zoragarri, alegia, ortzea urdin eta garbi; baña ugartea bera... zerao iguingarri.

Gañerantzean, bazekien Joanes'ek (ugartedi artako jendeai entzunda) ikaragarritzko ilketak izaten zirala an, eta orangutanak kristaurik ikusi ezker, burutik egiñik-edo, akabatu arte etzirala lasaitu oi. Eta egiñalak egiñaz, besterik ikusi gabe, alde egin omen zuten andik, berriz ez azaltzeko.

\* \* \*

Urteak baziran au Joanes'i gertatu zitzaionetik; eta bazirudien gertaera ura iñork etzuela beñere siñistuko.

Eta ara nun jakiñ-arazten den, lurralde aietaruntz abiatu dela ontzi bat, azterpen guzizko bat egiteko erruz ornituta, milla aparatu eta tramankulu daramazkiela, edo zer gauza miatzeko gai. Jakiña: azterketa guzia orangutanai deus oart-arazi gabe egingo zan, beren bizimodu egiazkoa alik eta ondoen ikuste arren.

Joanes zaarrak au jakitean artu zuen poza ez da itz gutxitan azaltzekoa. «Jakingo aal da nere egia!» esaten omen zuen eten gabe.

Jakintsuak aspaldidanik biziro larri zeuden ugarte famatu ura zela-ta, Joanes'en kondaira ez baitzan bakarra, eta ez lenengoa ere: adituta baitzuten ura. Bearbada, pentsatu zuten, «Katzlahu»n arkituko dugu gizonaren billakatze-katean falta dugun mall. Ugarte artako añak zibilizazio izanagatik ere tximu ba diraute, bere tximutasuna osotoro galdu ez ba dute, garbi dagoke ondorea: beste Pithekanthropo bat arkitu dugu; edo, obeto esan, gizonaren eta Pithekanthropoaren arteko gizaidea.

Eta orri elduta, aruntz abiatu ziran, esperantzaz beterik, jakinduriaren alde pausu aundi bat egingo zutelakoan.

\* \* \*

Eta «Katzlahu»ra iritxi ziran.

Ugarteko iñork ikusi gabe jetxi, amaika tresna lagun. Eta otsik atera gabe, antenak jarri, irratia eta telebisioa eratu... egia esan, al dakit nik zer etzuten jakintsu aiek jarri?

Eta alaz ere, naiz-eta lur-gain ura edonolako traman-kuluz bete ba zuten ere, orangutanen begiak ezin ikus zezakean an ezer, ezta tramankulu-arrastorik ere. Ez dakit nik nola egin zuten, edo zein gaiez. Ori ba neki, berak bezin jakintsu izango nintzake. Ondak eta alakoak aipatzen zituzten sarri. Eta onda aien bidez ikusten eta izkutatzen omen zuten dena. Bearko! 3.000 garren urtean ere ez dakit alako aurrerapenak lortuko ote diran. Zalantzan nago beñipein.

Lurpean, berriz, etxola ederra antolatu zuten, eta talai gorde bikaña zitzaien. Andik atera gabe dena ikus zezaketen jakintsuak: pantalla batean sai-zuloen arteko kalea, beste batean dorre-burua, beste batean... Irakurleak asma-aal guzia ta geiago jarri zuten an, den-dena kontrolatzeko. Nere ustez zirkiñik txikiena, ojurik motelena, kiñurik diximulatuen eta ikus-gaitzena an agertzen zan, gela ontan edo artan, olako aparatutan edo alakotan, jakintsuak azter zezaten. Auei etzitzaien ezertxo ere gordetzen.

Espedizio orniturik munduan izan ba da, ura bai ornitua, ikasia, tajutua, eta edozertan aparta.

Zitu ederra ekarri bear zuen, bai, jakinduri-txango ark. Eta ekarri ere zuen, geroz ikusiko den bezela.

\* \* \*

Asi ziran ba billaka eta begiraka, emendik eta andik, xeetasunik kiskillena artertuz. Eta lanean asi-berri ziralarik arri zaar arrigarri bat arkitu zuten, izkribituta iduriz. Eta beren etxola izkutura eraman zuten.

Zalla zan ura entenditzea. Letra-moldea bera asmatzeko egunak eta egunak zituzten. Baña talde artan baziran edonolako jakintsuak, eta izkuntzalari fiñak ere bai. Eta auei eskerrak itzuli aal izan zuten izkribu-arria.

Ainoen izkuntza zaarra zirudien mintzairak; eta dena ondo aztertuta gero, esan zuen Koblaur filologoak: «Izkribu onek, nere ustez, milla bat urte baditu gutxienez.» Ona, euskeraz ipiñita, arriak ziona:

«Uru'ren 63 garren urtea.

»Emen izkribitzen dugun au iñork irakurriko ote duen ez dakigu. Bañan itxaropen ortan egiten dugu.

»Betirako gaude emen. Ekaitz ikaragarri batean galdurik, ugarte zoragarri ontara erori gera, nola ez dakigula, eta ez daukagu salbatzerik. Ikaragarria da gure ondikoa.

»Larogei ta zortzi lagun giñan ontzian, eta oietatik irurogei ta amazapi ito edo galdu ziran ekaitzean.

»Asi giñan ba salbatu giñanak gure bizimodua emen moldatzen, eta gauza latza gertatu zitzaigun. Emengo baso ontan barrena sarturik, orangutan-aldra aundi bat topatu genuen, eta berakin borrokan asita, gutako zazpi la-

gun il ziran. Asiera besterik etzan ura: bereala ikusi bait-  
genuen izugarria zela emen orangutanen mulzutasuna.

»Etsita giñan beraz, emendik bizirik irtengo ez giña-  
lako segurantzian. Eta ein ortan geundela debruari egin  
genion otoitz, eta agertu egin zitzaigun. Eta esan zigun:  
«Bide bat besterik ez dakusat zuentzako; eta au da: zuek,  
barrenez eta gogoz gizon jarraituz, itxuraz orangutan biur-  
tzea.»

»Zalantzan egondu gera egun batzuez, zer gerta zeki-  
gukean bildur. Bañan azkenean, bart, illargi betea izanik,  
debruari otsegin genion, eta bere aurrean auspezturik  
esan: «Gertu gaituzu. Zuretzat izan bedi gure arima. Bi-  
zi nai dugu. Gorputzez eta itxuraz, biur gaitzazu orangu-  
tan.» Eta orangutan billakatu giñan.

»Eta orain, oianean barrena joan aurretik, au jakiñ-  
erazi nai dugu. Guretzat ez dago barkatzerik.

»Etorkizunaz ez dakigu deus. Zenbat urtez biziko ge-  
ra? Zertara iritxiko gera? Ez dakigu. Baña guretzat dena  
amaitu den ezker, arima salduta dugun ezker, gizonen  
artera berriz itzul ezin gaitezkean ezker, orangutanen  
adiskidetasuna bear dugu; eta edozein gauza egiteko prest  
gaude adiskidetasun ori lortze arren. Gure orangutan-bizi  
au iraungituta, kalda gorria eta sufrezko sua izango ditu-  
gu lagun.

»Anartean, deabruak sostenga gaitzala!»

Ikarak artu zituen denak. Iñor etzan ausartzen ezer

esatera. Denak berdin pentsatu arren, iñork nai ez lenen-  
go bota.

Baña bota ez ba zuten ere, bazioten denak berekiko:  
«Argi ta garbi dago gertatua. Emen ez dugu Pithekan-  
throporik arkituko, ezta billakatze-katean billatzen ari gi-  
ñan malla ura. Pizti-eli au gizonaren eta orangutanaren  
seme da, eta ez bion artekoa. Naasi egin zuten azkenean  
galdutako gizon aiek beren odola ugarteko orangutanena-  
rekin, eta naaste artatik dator leñu zital eta lazgarri au,  
Bañan alaz ere, ez ote dugu au berau Pithekanthropoa ba-  
ño istudiagarriago?»

Eta an gelditu ziran, leen baño gogatsuago agian.

\* \* \*

Eta egunak igaro ziran, asteak, urteak. Eta an zeuden  
oraindik jakintsuak. Ugarte ura, alegia, ikusgarria zan: fa-  
brika arrigarriak ziran, labeak nun-nai, tximiniak ugari,  
zubiak denetatik. Bañan etziran gureak bezelakoak, ez:  
oso bereziak ziran, oso desberdiñak.

Beren bizi-lekuak kaletan tajututa zeuden: Afrika'ko  
beltzen erri koskorrak ziruditen aldiz, bestetan New  
York'ekoak. Baña beti itsusi, beltz, astun, ketsu.

Eta oitu ziran arrigarri zan ura guzia ikusten.

\* \* \*

Alako egun batean istillu aundia sortu zan ugarteko

«uriburuan». Kulpito-edo batetik orangutan sendor indartsu bat ari zan «itzegiten». Egia esan izketa etzan ura, baña aren antzeko zerbait zela esan diteke. Entzuleak, entzuten ari zitzaizkion orangutanak alegia, urduri zeuden; eta berari entzunda gero urduriago. Eta anpatuaz joan zan zalaparta, geroz ta geiago, eta azkenean ifernua bera zirudien ark. Distira erratsua agertu zan guzien ninietan, sua piztu zan beren barrenetan, eta jauzika eta deadarka asi ziran, oiko burubidea zearo galdurik.

Buruzagi aren esanari zerraizkiola, alkarri kolpeka asi ziran leenbizi, gero labeak idekitzen eta sua toki guzietan irazekitzen, ura deabru-leize bildurgarri biurtu arte. Eta segak eta itaiak eskuetan arturik, bapatean atera ziran edozer moztutzeko ta birrintzeko prest; eta aldame-neko erri batera iritxita, ango guzi guziak il zituzten, orangutan-emeak ezik. (Ez karidadeak eraginda, noski.)

Gorritu egin zan lurra, eta itaiak kamostu.

Eta berriz paketu zan ugartea.

\* \* \*

Eta bazirudien ilketa ikaragarri ura gaizki zetorkiela alako orangutan langille aiei, etzetzala artan bere izana. Orain trankil bizi ziran berriro, nor bere lanean; eta dorre aundiagoak eraikitzen zituztela.

Bañan alako batean, errieta eta zarata ikaragarria jarri zan berriz sai-zulo-buru artan (edo «tximuri» artan, naiago ba du irakurleak). Berriz ere orangutan bortitz bat

ari zan mintzatzten, oso gogor. Trumoi latza izan zuten artemein, eta uzta guzia ondatua zan. Goseak zeuden noski, eta argatik okasio billa.

Eta atera zan buru egiten zuen orangutana, eta jarraiki zitzaizkion denak, sua zeriela. Eta ugarteko etxaburu batera allegaturik, asi ziran janariak ebasten, mandioak ustutzen eta zernai lapurtzen. Eta bertako orangutanak kontra egin zieten. Eta jo ta autsi asita geienak il ziran. Eta bizirik irten ziranak, lapurtutako bazka berakin eka-rrita, errira itzuli ziran.

Eta gizon zintzo ta zentzudun ziruditen berriz.

\* \* \*

Denbora asko pasa zan orrela, eta dorre berriak eraiki zituzten, geroz ta altuagoak. Eta uzta ederrak jaso ziran landetan.

Eta, alako batean, orangutan aul bat asi zan itzegiten, eta orangutan aul guziak zituen entzule. Erri ura tajutu bear zela esan zuen, etzela ezer erre bear, etzela emerik lapurtu bear. Gorago jaikiko ba ziran orangutanak, zintzoago jokatu bear zutela. Orangutanen eskubideez mintzatu zitzaien ere, eta bere gaitasunaz.

Eta orangutan sendoak arturik, gurutziltzatu egin zuten.

\* \* \*



Au ikusita alkarri begiratu zioten jakintsuak, eta ezin zuten txintik bota. Lazgarritasunak mututurik bide zeuden. Gauza asko ziplo ulertu zituzten. Eta beren buruen absurduari igarrita asi ziran alkar kolpatzen eta iltzen.

Batzuk ugartera jetxi ziran ondo agirian, eta orangutanak il zituzten.

Beste batzuk bere burua il zuten; beste batzuk, berriz, ardoari eman zitzaizkion kordea galdu arte; eta gañerakoak ugartean zear sakabanaturik, etziran berriz azaldu.

\* \* \*

Bat bakarra itzuli zan andik, eta berari eskerrak dakikegu au guzia.

Baña berau ere, bereala, bere errira itzulita, au guzia kondatzen asi zan.

Eta bukatu ez al zuen, errikideak berak artu, eta il egin zuten.

Donostia'n, 1957 Azaroan.

PIARRES GAXOAREN  
PASADIZUAK

(1958)

Gaizki xamar zebillen Piarres bolada artan; beti eskas, beti erixka... Orrengatik, oean zegoelako fama etxez-etxe barreatu zanean, iñor etzan geiegi arritu; bistan baitzan bere erbaltzea. Eta «Piarres gaxorik zegok» entzutean, askok esan zioten alkarri: «Oeratu bearra ez duk arrigarriena, orain arte orrek beeraka ikaragarri artan irautea baizik.» Arrazoi zuten: iru urte artan beera ta beera, geroz eta aulago ta makalago ibiltzen zan gure Piarres errukigarria.

Oean zegoen ba eta zer eman zioten sendagarri? Ikusiko duzu, irakurle. Gerta zaite.

Asi zan leenbizi Kepa bere laguna Piarres'en eritasuna sendatzekotan. Eta bertsoak egiten ari zan jai ta aste, bertso illunak alegia, bertso zirrargarriak, entzuleen biotza estutu ta erdiratu egiten duten oietakoak... «Ai, Piarres biotzekoa! Gaxorik zu, nere gaztetango adiskide ori», eta abar. Eta orrela, kantari, bein eta berriz azaltzen zuen Piarres gizajoaren zorigaitza.

Baña, noski, geroz ta okerrago zijoan Piarres...

Jakin zuen Mattin'ek ere Piarres'en eritasunaren be-  
rri. Eta arek ere, ikustez bakarrik ezagutu arren, aurkitu  
zuen beste sendabide arrigarri bat.

Iñork ere nola asmatu zuen etzekiela, asi zan toki  
guzietan esaten Piarres'ek etika zuela, ots, birikak zituela  
eri. Eta orrelako eta orrelako erremedioak zegozkiola. Eta  
agindu bat eman zion Piarres'i, au esanaz: «Piarres: Ik  
enauk ni ezagutzen. Baña zeatz zekiat nik zer dukan. Eti-  
kaz ago i, ez dudarik izan.» Eta, ondoren, «au ta au ta  
au egin bear duk» esan zion.

Eta egin ere zuen Piarres'ek, Mattin'ek esan bezelaxe.  
Baña argatik ere etzan sendatu. Aitzitik, okerrago jarri  
zala esan dezakegu.

Piarres'ek bazituen etsaiak ere. Eta auetako batek,  
Rikardo zeritzanak, jakin zuen Piarres gaxorik zegoela.  
Eta poztu egin zan. Ez poztu bakarrik; kontsejuak eta  
iritziak ematen asi baitzitzaion. Eta esan zion: «Ik min-  
bizia duk. Jai duk edozertan saiatzea. Ireak egin dik.»  
Eta errikideai esaten zien: «Onekin etzegok ezer egite-  
rik. Au ba ziak. Obe diagu, ortaz, eortzeta dotore bat  
gertatu, andikiak eta puntuzkoak artara deituaz; eta utz  
dezagun Piarres pakean iltzera.»

Eta askok aintzakotzat artu zuten Rikardo'ren iritzia.

Eta, bitartean, geroz eta okerrago zijoan Piarres gi-  
zajoa...

Eta bazegoen erri artan mariñel famatu bat, Mari,  
itsasoko gorabeeratan oso jakintsua. Eta joan zan Piarres'

en etxera. Eta gaxoari begiratu arin bat emanik, au esan zuen: «Onek ezetik ezer, buruan ezpada. Tema bat sartu zaiok oni kaskoan, seta uts bat. Sendatzeko ibiltzea komeni zaiok. Oean etzanda segitzen ba du, kitto.»

Sekulako ibillaldiak egin zituen Piarres'ek, eta... aibat okerrago. Erruz ematen zioten jaten, baña alperrik. Egurastu, ondo jan, obeto edan. Dana alperrik. Piarres'en temak etziran Mari'k uste bezin azkar itzaltzen.

Joan zitzaion orduan Joxe. Eta, gauzaren arrigarria: Piarres zegoen gelara sartu bearrean, aldamenekora joan zan. Eta atea maratillaz itxirik, barruan gelditu zan ordu batzuez; eta ateratzean, goratik esan zuan poza zeriolak: «Badakit, badakit zer duen. Ezueria du, ezueria, ezueria!». Eta Piarres'en gelan sartu zan, eta galderak egiten asi zitzaion. Ondo xamar bide zijoazen gauzak. Baña bapatean, kiñu bat egin zuen Kepa'k, eta muzindu egin zan; zearo aserretu geroxeago, eta azkeneko, sartzean baño goragotik esan zuen: «Au gaizki dago. Zuk olako ta olako siñaleak eta aieruak izan bearko zenituzke ezueria izateko. Eta, alarik ere, ez dakusazkit. Nik aldameneko gelan, alabaña, ori ikusi dut neure burua aztertuz: ezueria duzula. Ots, zeuk ikusiko. Ezueria duzu zuk. Bost ajola neri, ortaz, zure sintomak eta zure esanak. Zuk ezueria duzu!»

Gaizkiago jarri zan Piarres, esan bearrik ez dago.

Ez ori bakarrik. Istillu ikaragarriak sortzen ziran erri artan. Piarres'en eritasuna zala-ta sesio zaratatsuak, kol-

patzeak, eztabaida eroak, eguneroko gertaera ziran. Jendea, gañera, bere iritzietan finkatu zan, tematu zan. Eta batzuk «ezueri-zale» ziran, eta beste batzuek berriz «etika-zale». Baña norañoakoak!

Mikaztu egin zan jendea, izugarri samindu arte. Erri artan etzegoen gorrotoa besterik. Aaztu ere ziran, nere ustez, Piarres gizajoaz. Iñor etzebillen Piarres'en alde. Danak, au bai, alkarren kontra.

Eta au gogorra zan, itsusi eta atsekabea batez ere. Ots pakeak egin bear ziran. «Gozaiturri»'k zion bezela etzan zer asarreturik: leia guziak onak ziran. Bere itzak berak erabilliz «bide asko dira gure Piarres indartzeko, eta ez gaitezen orren ertsiak izan gure iritzietan. Joera guziak, borondate onez lanegin ezkerro, Piarres jasotzeko onak izango dira.»

Eta Piarres geroz ta okerrago, noski... Ikustekoa zan bere bizimoldea. Egun batean asko jaten zuen, urrengoan ezer ez; gaur oean, biar mendizale; asteazkenean legatza, ostegunean barur... Gizajoa.

Gauzak ortan zeudela, lau miriku jakintsuk jakin zuten Piarres'en ondikoa. Eta orrengana etorrira, zalaparta bizia arkitu zuten: «Onek ezueria dik... onek etika dik... au burutik egiña zegok, besterik ez... obe likek au ta ura egin balu...». Ura bai liskarra. Eta dalako «Goza-iturri» arek bein eta berriz: «Ez gaitezen orren ertsiak izan gure iritzietan. Joera guziak, borondate onez lanegin ezkerro, Piarres jasotzeko onak izango dira...»

Aien ikara. Zigor bana artu zuten lau atxeterrak, eta besterik gabe, asi ziran jo ta autsi, ziotelarik: «Alde emendik, eruok. Zerok gaizkitu dezute gaxo au, ez eritasunak. Zeron astakeria da bere oñazeen kakoa.» Eta egiñaletan bota zituzten etxe artatik.

Eta atepak itxita, asi ziran laurak gaxoaren eritasuna aztertzen: Odol-ikertze, gorputz guziko erradiografia, elektrokardiograma, elektroentzefalograma, gernu-ikertze... Nik dakita? Amaika galdera egin zioten bere aur-tzaroaz eta gaztaroaz, eta orrela, mia ta ikus, iru egun pasa zituzten.

Eta, onatx jakingarriena: nork bere aldetik datoak ikertuta, laurak berbera erabaki zuten: «Gibela du eri Piarres'ek. Ez da orren gauza larria. Zestua'ra joatea dauka.» Eritasun berbera arkitu zuten laurak, bai; eta erre-medio berbera: Zestua'ra joatea.

Zestua'ra joan zan ba, Piarres, eta onduz zijoan leenengo egunetik beretik.

(1958, Donostia)

ETA EZ ZIREN  
SEKULA ITZULI

(1969)



Arratsa leunki heldu zen Baiona gainera, Euskal Herriko «Lapurdum» zaharraren gainera. Igandea zen. Zerua zuriska, eta bare, txit; eta katedralaren bi dorre zorrotzen hegia, beltz nabarmentzen zen ia-ia. Hiriaren atzekaldean, «Espainia-ko Atea»ren inguruetan; alegia, murre-ilarak eta gaztelu-ijenteak oraindik ere ikusgarri agertzen diren eskualde hartan, eguerdi iriko eguzki dir-daitsu pean baino itxura malenkoniatsuago hartzen zuten biek. Frantsesez «Nive» (euskaldunen ahotan inoiz «Errobi» baizik ez izana) deritzon ibaiaren ur freskuak, Ahuñemendi-ko usainez oratuak, oso polliki isurtzen ziren Aturri-rekiko elkargunerantz. Honen eta haren urak hiri-erdian batzen ziren. Eta irudimen apur bat aski zen antzinako «kakoleta» famatuak antzemateko. Handik abiatzen ziren euskaldun emakume sendoak, oin hutsik, «barru» aldeko beren baserrietarantz, aztal gotorrak erakusten zituztelarik. Era berean, gaur egun desagertuak diren ibai-ontziak ere soma bide zitezkeen arrats geldi hartan, Baiona-tik Kanbo-rako beren garraio-biderako abian. Osoki maitatu zuen hura guztia Edmond Rostand arro-

tza, mende haseran bai Kanbo bai Errobi bai Lapurdi osoa atzerritarrek ozta-ozta ezagutzen zutenean.

Basusarri eta Milafrangaren artean, eta Errobi-ren ertzean bertan, Bordanasa auzotik ez urrun, Etxeparea zertizon baserria zegoen. Eta Xalbat Dibar bertako etxeko jauna, igandero bezala, bazihoan oinez etxe aldera Baionatik itzulian. Urte askotan barrena izan zuen sasoi zalu hura, dena dela, galdua zuen erabat egun hartan. Gure arratsean asperrantzean begiratzen zituen ibai-ur geldi haiek, jaiotzaz geroztik lagun izanak; eta Etxepare-raino falta zitzaizkion bost kilometroak, hainbestetan gustora ibilitakoak, gehiegi zitzaizkion bat-batean.

Arratsaldean, Mugerra-ko bere bi lagun topatu zituen Baiona-ko Euskaldunen Enparantza zahar-zaharreko trabenetan gaindi pasean. Zergatik ez bazekien ere, plaza huraxe maite zuen. Iruñean bezalatsu, ageri dira oso Baionan ere antzinako gaztelu-murruak; eta autobusak batera eta bestera sakabanatzen dira, inguruetakoko herrietarantz prest. Galdutako herriska horietako bizilagunek, landareak balira bezala, arbasoen lurrari eusten bide diote azkarki, izakeran ere halako zakarkeri kutsua nabarmen atxeki dutelarik. Ongi izkiriatu dut «bide» hori; zeren-eta, funtsean, «indiano»-herria baita Iparraldea. Alegia, Ameriketarako joale herria.

Xalbat-ek, halere, ez-ikusia egin zien. Jende ona zitzaien, egia da; baina bere hartan gogorik ez «kalaka» egiteko. Mugertar haiek gehiegi edaten zuten, aise gehiegi; basoak ilaran hustu; eta arrastirian, zerrepeldurik,

etxera, eta harakoan emaztearen sermoi berri (berri ote?) bat entzun.

Egia esan, maiz egiten dute hori gaurko euskaldunek; bentzutuak eta desjabetuak izan diren herriek eta klaseek beti ere egin izan duten bezala.

Gizon «bitxia» omen zen Xalbat hura. Gizon «jakintsuna» ere bai, omen. Araiz! Ez baitzen batere Ipartarrik gehienak izan ohi diren plegukoa.

Ez zen intelektual horietakoa. Hori ez. Nekez izan zitekeen horrelakorik garai hartan «kanpañan» jaiotako gizakumerik. Baina nahiago izan zuen Xalbat-ek baserriko bizimodu gogorra, kaleko leuna baino; eta, esate baterako, ez zuen inoiz lanbide teknikorik ikasi nahi izan: «Karrikan bizi? Ia!».

Anai-arreba guztiak joanik, Etxepare-ko jaun-eta-jabe gertatu zen. «Sehi» langile bat aspaldi danik etxen laguntzaile izanik, irakurtzeko beta topatu ohi zuen usu; eta autodidakta zela esan liteke. Begikolpe zehatzak ere izan ohi zituen errealitateari buruz; eta Donostia, Iruñea eta Bilbo ezagutzen zituen. Harrigarria ote? Oso! Mugaz bestaldekorik ezer ezagutzea, guztiz gutxitan gertatzen baitzen hirurogei-kada hartan Xalbat-en inguruko jendeen artean; eskuarki, pentsa zitekeenez, burdinazko baradera batek lukeen lodiera baitzeukan Ahuñemendiko mugak:

—Espainiarat joan, zerendako?

Sorkuraz, nik uste, inguruaren kontra paratzen zen

Xalbat afera-mota askotan. Eskola «libro»aren etsai amorratua zen, adibidez; eta, hau dela-ta, bere buruaren kontra bildua zuen udal-kontseiluaren herra bizia: «Kasu! Xalbat gorria duk!».

Askoren eskandalagarri, ez zen berrogei urte hartan meztara joaten. Belaun berriak zer pentsatzen zuen garbiki ikusi ez arren, «Enbata» hartzen zuen aste oroz eta abonamendu bidez; askoren ustez «ahalkegarri» baitzen. Konturatu gabe, hitz batez, «progressiste» delakoa izan zitekeen. Hots, hitz horrek herrak eta pozak ernatu izan ditu gure herrian: «karlisten» eta «liberalen» arteko erdibiketa hori, ez baita Hegoaldekoen berezitasuna.

Nolanahi ere, osoki gogaituta zeukaten bere herriki-deek: kankailu eta zozo antzematen zituen alde askotatik; eta gutxi gurutzatzen zituen. Lanari zetxekiona besterik ez.

\* \* \*

Bide bakartian barrena zihoalarik, Larrondoeta parean gelditu zen; eta bere 58 urteetan osasun normala izanik ere, akiturik-edo antzeman zuen bere burua; harrigarriro unhaturik. Are gehiago: biziak berak errotik nardaturik, eta bizitzen jarraitzeko inolako helbururik somatzen ez zuelarik. Eta esaldi hau itzuri zitzaion:

—Eta bihar lanera! Zertarako, ordea?...

...Eta seme bakarraren oroitzapenak gailendu ziren

Xalbat-en buruan; Milafranga eta Errobi bera ezabatu arte.

Xalbat Dibar, semea, Etxepare-ko seme bakarra zen, premu eta bakhotxa batera. Eta bai Xalbat Dibar aitak, bai Maddalen etxe-ko andre eta amak, beren esperantzak oro eman zituzten haziz zetorren mutiko harengan.

Lilura horiek, ordea, berehala suntsitu ziren:

—Gogorra duk hemengo gure bizia, seme —esan zion aitak halako batez, semeak Ipar-Ameriketara joateko zuen asmoaz zerbait jakin zuenean—. Baina sorterritik urrun-tzea ere gogorra duk arrunt. Ez duk batere goxo. Hogei urthe bertzerik eztuk hik orai, eta dena eztakik biziari buruz. Atxakia bat baizik eztuk Ameriketako, estakuru bat, ihespide huts ere usu. Gure herria hemen duk. Eta hire etxea, Etxepare daukak.

—Aita: oraino enuzu deliberatua —erantzun zuen gazteak—. Peio lehengusuari aipatu diot afera, bai. Baina bertzerik eztago mementoko. Bera hemendik bi hilabete-tara joanen da. Garazi-ko Charles Iriart-ek hartu ditu bere gain bidaiaren gorabeherak eta paper-konduak oro.

—To! Ongi ezagutzen diat nik Iriart hori. Eskualdun artzainak kanporatzen dizkik usu, baina bakanka ere ez herriratzen...

—Bidai-txartela eskuratzen die.

—Joan-jinik ez, ordea, sekula santan —irribarrez aitak.

—Bera ezta joan-beharraren erruduna. Erabaki ezti-tuen atzerriraketak antolatzen ditu berak. Bertzerik ez. Hegazkin-pilotuek egin ohi duten lana baizik eztu egiten.

—Egia duk hori. Alta, ez eztiat gizon hori batere maitete. Hire bi osaba galduak dizkiat jadanik Idaho-n: Roger eta Pantxoa, ene anaiak beraz; baita hiru lehengusu ere. Eta adiskide pila bat ere bai. Bizimodu hobe baten xeka harat joanak, kitto. Haiek ere Alaska-ra joan ohi zen bezala partitu ohi zituan Idaho-rat eta Nevada-rat: berehala aberastekotan. Nolanahi ere, bethirako joanak!

—Eztuzu egia, aita. Bizi-beharrez joan ziren, ez han hiltzeko desiran. Ezin dakieke ezer bota aurpegira. Gure herria hiltzen ari denez gero, garaiz salbatu behar. Ez herria, geure buruak baizik. Belaunez belaun hemengook egiten duguna bertzerik ezta hori.

—Gauza bera egiten ziaten Irlandan. Irlandarrak ere garhaituak izan zituan, menperatuak; eta ihes egin ziaten. Nazio-errekartzeari zegokiok nazio-emigrazioa. Xabierreko Frantses nafartarra ere, okupatutako eta zanpatutako Nafarroaren sinboloa duk: hark ere deserri-mota ohargarri bat behar zian; eta atxeman ere egin zian Kristo-ren atxakian.

—Bortz axola niri. Nik gizon gisa nahi dut bizi. Hemen ala nun-nahi.

—Dretxoa baduk. Baina lurrik gabeko gizona, erdigizona baizik eztuk. Landareak eztituk bakharrak izakien artean beren lur-sail berezia behar izaiten. Lurra eta tei-

latua behar dizkiagu gizonok, errotik behar; eta bertze-  
la, haizeak erauzitako zuhaitzen antzera, eihartu egiten  
gaituk, eta antzu bilhakatzen.

—Lurrik eztaukan gizonaren izpiritua, horretan egia  
duzu, eihartu egiten da. Guk hemen, ordea, lurrik eztau-  
kagu. Hamarretarik batek ba ote du? Gure lanik eza gar-  
biki erakusten duen iduria dugu hemen: hondartza eguz-  
kitsuak baditugu, bai; baina bertzeendako! Kanpiña egi-  
teko eskualdeak ere baditugu; alta, paristarrendako! Eta  
uda-partean alogeratzen diren etxe ederrak ere, hor dau-  
de, hutsik, baina ez guretzat! Badauzkagu neskameak ere,  
anhitz neskatxa prestu... Paris-ko hamaseigarren arrondi-  
samendurat igortzeko; are neskazale aspertuendako nes-  
katila «libroak» ere... Baina, hori bai. Guk dantza egi-  
ten dugu, bethi dantza eta dantza, bethi irribarre eta irri-  
barre; bazter guztietan dantzari eta irria ahoan... «Qu'ils  
sont gentils ces Basques!»... Horra hor guk hemen dau-  
kaguna, aita. Eztaukagu fitsik!

—Entzun zak. Ene aitatxi beasaindarra zuan, eta ni-  
re «aitona», beraz. Gipuzkoarra zuan, eta Ibarra zian ize-  
na... Hi ere Ibarra hiz bostgarren deituraz. Hots, Ber-  
gara-ko eta Beasain-go nire lehengusuek, lantegitxo bat  
zeukatek han. Eta eztituk higitu, ezta higituko ere. Sor-  
terriari atxiki ziotek, eta ganbiatu egin ditek patua. Ger-  
la ere egin ditek! Hori duk bidea. Hik heuk ere, borro-  
ka egin behauk. Eztuk lekhua hustu behar!

—Minak bazituzten han.

—Atxikitzera deliberatuak zituan!

—Berdin zait, aita! Muga hor dago, tartean!

—Hain zuzen ere!

—Hain zuzen ere! Hori da! Errealista izan behar, ez-tea? Eta nik ezer guti irabazten ahal dut Milafranga honetan. Joan egin behar. Partitu egin behar. Hemen eztaukat deusik. Zerbait bai, egia erran: neure bizkar-hezurra malgu, eta makurtzen hasteko prest. Turista jauntxoen aitzinean, edo-ta lur zekenari azken alea khentzekotan... Ez!

—Gutiago diagu guk, hire amak eta nik biok. Hitaz kanpo, eta jadanik heriotzari buruz ari, deusik etzeukeagu. Berrogeita-hamarkadan barrena ongi abiatuak gaituk. Entzun! Baionan edo Donapaleun eskatuko diat nik kreditu bat, eta traturra erosiko deiat. Etxearen ondoan, eta hiretako, barruki handi zabal bat egin-eraziko diat; barruki eder horretan kabala eta uzta sartzeko. Nik enian behar, eta ez nahi ere; baina telebista ere emanen diagu etxen. Alajinkoa! Posible duk hemen bizitzea... Bidea ere gudroneztatuko diagu. Astelehenean bertan joanen nuk Dupont jaunaren ikhustera. Crédit Agricole-enekoa, bada-kik. Eta gero, nahukana egin zak!

—Mila esker anitz, aita. Baina...

—Ez onno deusik erabaki, othoi! Hemen, Milafranga huntantxe, duela ehun urtheke aberatsek baino aise bizimodu errazagoa izanen duk hik...



—Peio lehengusuari eztiot baiezkorik eman; egia da hau. Ia-ia deliberatua niz, halere, harekilan partitzera...

Dibar zaharrak eta emazteak, horretara, kezkatuak, eta jakin-minez ere, hauxe galdetu zioten elkarri: «Hortaz, utzi eginen ote gaitu semeak?».

Baserritik beretik ikus zezaketen kanpandorra; eta, bat-batean, eliza inguratzen zuten hilobiak, urrutitik ikusiak izanik ere, hurbilago, eta bestetan baino askoz ere nabarmenago azaldu zitzaizkien.

Errobi-ko urak, artean, betidanikako soraiotasun berean isurtzen ziren itsas aldera.

\* \* \*

Agindu zuena bete zuen Dibar aitak; eta kreditu koxkor bat lortu zuen Donapaleun. Egun berean, Muserolako Lebas xarpantagilearengana jo zuen, Baionara, Aturri ondoko lantegi zaharretara; eta barruki galant batentzako prosupostua eskatu zuen: behientzako hodi-tresabiaz, eta paretak eternitez horniturik, eternit gorrizko bardajaz hetsia. Semearen partitza moztu nahi zuen.

1964-ko Uztailean, ordea; izandako elkarrizketa hartatik hiru hilabetetara, beraz, Bordanasa-ko gelditasun osoan, «Herria» astekaria begiratu zuten Dibar jaun-anderak, ezintasunean, begiak azkeneko orrialdeko ia ohizko fotoan. Alegia: azkeneko irteeren fotoa. Hura ez zen berdina, halere. Euskaldun gazte ilara pare bat ikus zi-

tekeen han, hori bai, beti bezala, hegazkina Orly-tik joaterakoan aterai; eta Ameriketarako abian, Boeing-aren eskaileraren azpian «amerikanoak» irribarrez agertzen zirelarik. Baina oraingoan... Xalbat Dibar ageri zen, Peioren ondoan.

—Hau ere joana dixugu bethiko —esan zuen aitak—. Eta Maddalen etsia erretiratu egin zen.

Eta Etxepare-ko isilpea astunago eta geldiago egin zen.

\* \* \*

Xalbat semeak, itxuraz bederen, foto alaiak bidali zituen Etxepare-enera. Idaho-ko «euskal» kanpaña hartako «ranch» batetan, sukaldari-ordezko postu bat aurkitu omen zuen; eta foto barragarri bat ere igorria zuen Milafranga-ra: «Ongui Ethorri» delako bazkaldegian ageri zen zutik, Peter Latxague etxeko jaunaren ondoan. Zuriz jantzita ikus zitekeen, burugainean sekulako sonbrailua zeramalarik.

—Konten bizi niz —idatzi ohi zuen bere eskutitzetan (ez oso ugariak, dena aitortzekotan). Eta ingelesez azpian hau erasten: «very glad, really. Don't worry about me». Kotxe eder bat omen zeukan, okasioz erosia omen: alimaleko «Pontiac» zuri bat. Orduko 200 km. egiten omen zituen, eta maiz jaisten omen zen Reno-raino, basamortuaz bestaldera.

Beste zenbait fototan, berriz, herriko jaietan ageri

zen: buruan lumak, eta denean indio-itxura borobilean. Battitta, Janik eta Peio bere hiru lehengusuak bezalaxe, beti irriz.

Dibar zaharra, halere, nekez alai zitekeen berri haien bitartez. Bere seme bakarra sekula berriro ikusiko ez zuela antzematen zuen:

—Xalbat joana da bethiko!

eta guztizko tristura batek betetzen zuen. Hilabete osoan barrena egon zen erabat etsita. Horditurik ere itzuli zen Baionatik zenbait aldiz; eta Maddalen, emazte isila, kezkatu ere egin zen.

Antzinako denborez ez bestez mintzo zen Dibar xaharkitu hura. Batari eta besteari kondatzen zien bere bizi-erria tristea, batari eta besteari behin eta berriz bere semearen jokamoldea; baita Maddalen-i ere, honek istorio eta zorigaitz horiek ongi ezagutu ez balitu bezala.

Okerragorik ere gertatu zitzaion behin. Hazparnen, merkatu-egun batez, goraki gauza berak entzun-erazten saiatu zen «Kaskoina»-enean. Zuhurtzia lapurtu bide zion ardoak; eta ia-ia borrokaraino ere heldu zen. Ez ziren irainak luzatu; eta norgehiagoka huntan Uztaritze-ko Dufau gelditu zen gailen.

Gizon hau biziki ezaguna zen; aspaldiko urteetan barrena, berak irakurtzen baitzuen 14/18 gerlan hildakoen «pheredikua», oso frantses txarrez eta oso ere euskara onez:

—Messieurs-Dames: nous voici réunis à Urtaritz (eta harrigarriri entzun erazten zituen 'r' guztiok)...

Eta azkenean bukatzen:

—Nous sommes fiers de notre petite patrie basque... Mais nous sommes fiers d'être français... Vive la France!...

Bera zen hizlari «atitratua», nolazpait esateko.

Eta «Kaskoina»-enean elkartu zirenean, berehala aurkitu zuen hizpidea:

—Ixo, beldurri hori! —bota zion Xalbat-i Dufau zaharrak—. Ongi ikhusi hindugun 1936-an.

—Eta gero?

—Eta gero diok hik? Ehuen hik trabarik batere izan hunat heldu espāñulak polizari ez salhatzeko; eta salhatu beharrean, berekin nahasi hintzen. Geroago konprenitu ziaten ongi afera, eta lehia ere egoki hautatu: Gurs! Untsa ina izan duk! Komunistak zituan guganat trumilka jinak... Zantarkeriak erraiten zizkiate, lapurtu egiten ziaten, ustelak zituan. Han Espainian denaz nardaturik, hunat jin eta hemen ere denari su eman nahi... Eta gure alhabak desloratu, bortxatu; baizik-eta frantses neskatilak «errazak» direla-ta. Neskatila leunak, badakizie...

Eta «Kaskoina»-eneako jendeak barre egin zuen algaraz.

—Hik heure etxeko bortak zabaldu hizkien; ongi or-

hit nuk... Hik alhabarik ez izaki, noski. Nik banizkian, biga!...

Beroaldi betean, zutitu egin zen Xalbat Dibar. Baina trabenan zeuden beste nekazari batzuk gelditu zuten, eta heldu zen gataska baztertu.

Eta orduan Xalbat-ek, garrasika, bere indar guztiez, hau bota zion:

—Neure anai-arrebei ireki nizkiean atea! Lehen-lehenik, larrialdian zeuden gizonak eta emakumeak zirelako; etsai zapaltzailearengandik ihesi zetozen gizonak zirelako...

—Des crapules!! —erantzun zion Dufau-k—. Urde zikhinak!

—...eta, bertzalde, hunat hemen zerendako zabaldu nituen Etxepare-ko bortak: eskualdunak zirelako, anaiak zirelakoz...

—Putxa galantak haiek!

—Ni neu ere, beraz, putakumea nuk! Ene aitatxi zena Ibarra kapitaina bertzerik ezpaitzen, Santakruz apezaren manupean gerrilan ibilia...

—Domaia duk!

—Hura ere hiru urthez gerlan ari izan ondoren, aphurtua, xehatua, etsia, Baiona-rat jin zuan 1876-an. Baserria liberalek sutan emana, etxea ere galdu zian; baita bere bi anaia ere Bizkaian, biak Gordexola-tik ez urrun. Hark ere gerla galdu zian!...

—Hobe hola —esan zuen Dufauk ahapeka.

—Zer?

—Segi, segi. Gero erantzunen.

—Haren aitak ere 1839-an gerla galdu zuen bezala, handik 18 urthetara deserritik, Langon-dik, itzuli arte. Familia-tradizino tristea duk hau, zinez: behin eta berriz bentzutuak, garhaituak, xehatuak. Eta familia-tradizino hori, herri-trajedia bilhakatu duk gurean; gure herri osoa izan baita behin eta berriz zafratua eta txikitua. Eta nik eztiat hori sekula ahantzi. Hik bai.

Zutitu egin zen Dufau, gorri-gorri eginda:

—Alu zerri hori!

Jendea erdira irten zitzaion:

—Hago lasai, Dufau!

—Utz nazazue, aluia! —errepikatzen zuen Dufauk.

Eta amorrazio osoan erasten:

—Bistan duk, bai! Ikusi diagu berriz! Españula hiz hi! Heure zainetarik, español odol zikhina ari duk kurritzen! Kanporat hemendik! Hoa Espainiarat fite!

—E nuk ni españula sekula izan. Eta nire aitaxi hura ere ez!

Lehertu beharrez Dufau:

—Heure herrirat sartzea daukak! Han pobre izanen

hiz, heure herrikideak bezala; baina zoriontsu bederen. «Cante hondo» kantatuko duk han, lasai. Eta guk hemen, bakea izanen diagu! Bethi ziek, españulak, gu frantseson bazterrak kakazten ari!

Nola ote liteke horrelakorik senditzea eta sinestea? —pentsatu zuen Xalbat-ek. Baina ez zuen erantzun. Eta hitz mingarri horiek, hitz faltsu horiek, tinko gelditu ziren Xalbat-en muinean: «Heure herrirat sartzea daukak!!»... Eta ustekabean:

—Sartu beharrik etzeukeat nik. Neure herian niagok hemen. Ziek behar duzie zuenerat, Frintziarat, sartu!

Eta zorura bota zuen txistua. Eta «Kaskoina»-eneko eztabaida garratz hura entzuten ari zirenen artetik tarte bat irekiz, kalera irten zen.

Eliza inguratu, eta «Berria» frontoierantz jaitsi zen; eta han utzia zuen 2 CV zaharra hartu, eta izkutatu egin bide zen metalezko kaxa urdinaire apal hartan:

—Ezin dut hau guztia aitzinago eraman! Aski eta sobera dut!!... Azkenean, hemendik partituz, ene semeak egia zuela aitortu beharko dut. Herri hau... herri... (bilatzen zuen hitz gogorra ezin atxeman)... Hemendik aldegitia onena, hemendik betirako aldegitia, soluzio bakarra. Semeak egia zuen, bai... Hobe zukeen ene aitona zenak Iparralderantz segi izan balu; are Seine eta Rhin delakoez bestalderaino iritsi balitz... Orai ni holandarra edo norvegiarra izanen nitzen... Hori xantza!...

Etixerakoan, bide-bihurguneetan, behin eta berriz gertatu zen baztarra jotzeko zorian. Eta etxean sartzerakoan, zerbait gertatu zela igarri zion berehala Maddalen emazteak:

—Ez, Madalen. Baina eztabaida gogorra izan dixut Dufau zozoarekilan.

—Baina, gizona: Dufau-rekilan? Xaharra duxu Dufau. Duela 45 urthe Marne-ko batailla hartan besoan zauriturik gerthatu izana: horra hor dena, horra hor Dufau-ren loriarik handiena. Ongi dakixu: haren etxean, Joffre, Foch, Pétain; eta bertze inoren fotorik eztuxu ageri... Zerendako harekiko disputak oro? Entzun ere ez-paitu egiten. Eztixu balio.

—Egia duxu. Ezin, alainan. Gure Xalbat duela urthebete joan zenez geroztik, khanbiatia nuxu, eta nekhezago zautaxu zozokerien jasaitea. Ezin! Gathaska nahi dixut, nik uste; denbora luzeegiz isildu nuxu-ta...

Eta pittin bat beranduago:

—Eta gero ere, Maddalen... sos poxi bat bagenu... gu geu ere Ameriketarat joanen gintukexu... Idaho-rat agian... Eta han Xalbat...

—Ia! Xalbat-ek eztixu gure beharrik.

—Bai, Maddalen. Hori eginen dixugu oono! Ikhusiko!...

...Eta gogoeta hits eta azkengabe horretan Xalbat za-



harra Milafranga-rako bidean ari zelarik, eta Errobi-ko uretara begiratzuz ere urik ez ibairik ikusten ez zituelarik, zerraldo erori uste izan zuen; bere adin bertuko norbait, hura ere baserritar pettoa, Xalbat Dibar zaharra bezala, besotik helduz, bertako hizkuntza zaharraz hau galdetu zionean:

—Joan dea, Xalbat?

Nekez itzuli zen hau egiazko mundura.

—Pentsaketan ari orai ere? —ekin zuen gizon hark.

Piarres Haramboure zuen ondoan, Milafranga-ko bere lehen auzoa; hura ere oinez etxerat ari. Betidaniko adiskide zuen; lehen auzoa adiskide izan daitekeen heinean. Eta maiz topatu ohi zuen Baionan, igandeetan bereziki; baina baita Hazparne-n, Garazi-n, eta Donapaleun, azoka-egunetan. Txalotua gertatzeko segurantzirik izan ez arren, konprenitua izateko esperantza bazuen Xalbat-ek Piarres-ekin; eta jator aski mintzatu ohi zitzaion.

—To! Hi hiza? —Xalbat-ek. Joan dea?

—Joan arazten, badakik. Eta hik? Gogoeta hitsean harrapatu haut, nik uste. Ezpide duk gaur oso planta alaia...

—Egia duk. Akhitia nuk osoki. Etsia, hobe. Xalbat ene semea hila duk.

—Xalbat hila? Nola? Ameriketetan?

—Ba, ba. Hila duk.

—Zer gerthatu zako?

—Horrenbertze sofrikario, horrenbertze urthez bakhardadean, itsutasunez inguratua... Eta orai, errotik bakharrik gerthatu.

—Konprenitzen haut.

Eta isilaldi bat sortu zen bi gizonen artean.

—Ia hilabetea duk hila dela.

—Nola hil da?

Xalbat-ek nekez menderatzen zituen bere ideiak:

—...Eta alde batetik, Ibarra kapitaina, nihauren aitaxi izana; hil arte bere hartan gogor. Baizik-eta neholaz ere Beasaine-rat itzuliko etzela, ezpada Errege eta «Foruak» zerbitzatzekotan... eta azkenean 1935-an Etxepare-an zendua...

Tarte txiki bat utzi zuen Xalbat-ek:

—Egia erran, hobe harendako. Gaixo gizona!... Eta gero, nihaur... azken finean, alferrik xahartua eta lanean ari izana! Madarikatua duk gure familia! Gure herri osoa duk madarikatua! Judeguez gain, bazegok bertzerik!...

—Hala duk bizia. Eta ihardukitzea, alferrik...

—Judeguez —ekin zuen Xalbat-ek —bazekitek, jakin, herri madarikatua direla. 1943-an, nihaurk batzu sal-

batu eta Espainiako mugaz bertzalderaino joan nituenean, berek aithortzen zautatean. Ni sare anti-nazi bateko laguna ninduan; eta, euskaraz mintzo nizalako, nihaurk egiten nizkian berekilan mendian barreneko azken kilometroak. Eta judeguk hau erraiten zautatean: herri bazu Jahveh-k berak madarikatu dizkik. Eta haiek etzituan beldur izaiten: azkeneko mendera artio gorrotatuak, zafratuak eta jazarriak izanen direla baziakitean... Eta geroztik, ni jainkogabea izanagatik ere, gure herria, Eskual Herria, Jainkoak madarikatua izan dela sinhetsi diat...

—Barkha, Xalbat. Eta, nola hil da hire semea?

—Hila duk, eta hau sobera zautak. Baina bertzerik ere bazegok Xalbat-en heriotzan; alferrik ere hil baita. Are okerrago: zapalduen kontrako borrokan hila delakoz. Viet-Nam-en hil duk, bai, enboskada batetan, eta Tropikoetako oihan bethean!

—Hortaz, Viet-Nam-era joana zena semea?

—Bai, zorigaitzez. Oraitxe azalduko deiat.

Eta txapelaz jantzitako bi gizonek Errobi-ko ezkerretetik doan bide bakartia hartu zuten patxaran. Eta berriro ere ibai huraxe izan zuten beren koaiten lekuko...

—Duela urthebetetsu partitua zuan harat. Halako gradu bat eskuratu nahi omen zian; osabak 1945-an Pazifikokoan lortutako etzekiat zer domiña edo zer debru. Etziakian Xalbat-ek, nik uste, han borrokan zertarako ari zen. Baina borrokari atxikitzen zioan... Oso eskualduna

omen duk ahalik eta sortetxetik, eta sorterriko arazoetarik, urrutienean hiltzea... Legazpi ere, gipuzkoarra, aspaldian hil zuan Filipinetan... Pentsa! Egia erran, kausa, errege eta helburu urrun eta konpreni-ezinezkoen aldeko borroka latzean hildako eskualdunen zerrenda ikhusia diat behin; eta, zinez, harrigarri luzea duk. «Integrista» omen zuan Santakruz apeza ere (integrista baldin bazen, ezpainiz batere segur); eta hura ere urrun hil zuan, Argentinan. Bahekiena hau?

—Ez. Hiri-edo ezpada, izen horiek eztizkiat sekula entzun.

—Eta Zumalakarregi-rena entzun duka nehoiz? Edo-ta, Agirre-rena?

—Nehoiz ere ez.

Herra gora zihoala senditu zuen Xalbat-ek:

—Gauza bat erranen deiat hiri: zapalduak eztirela nehon eta nehoiz aiphatzen. Zaphalduen gain, isiltasunezko lausa gothor bat; eta... bakia!

—Etzakiat zer erran, ba.

—Garhaitzaileak dituk beren etxeetan hiltzen; baina ez bertzeak. Garhaituak izan direnak, hiri nagusietako «banlieue» gupidagabeetako kanposantuetan ehortzen dizkiate...

Batera gorroto eta maite zuen Xalbat-ek bere herria.

—Nire semea... Zer izan da nire semea aferamordo horren barruan? Heuk erran.

—Bazekiat nik ere horren berri.

—Oinazeak antzinako orhoitzapenak ekhartzen bide dizkik. Bazirudik, beraz, oraindik ere Etxeparean bizi izan zen urtheak berriro bizi-erazi nahi lizkidakeela. Edo, nahiago baduk, eta gehienez, «Ongui Ethorri» «ranch» hartan sukaldari egondako urtheak...

—Bazekiat nik ere oinaze horien berri.

—Nire semeak ere, erran deiat, arrazaren ahotsari kasu eginez, bere bihotzondoan, urrutira nahi zian joan, urrutira behar zian joan. Eta han hil. Hark etziakian, nik bai. Biziki urrun hil, bai; ahalik-eta kausarik urrunenaren aldeko borroka zentzugabeen... Santakruz, Legazpi, Xabier, eta bertze hamaika bezala... Nardatu egiten zian Milafrangak. Denok nardatzen genian, hobeki erraiteko. Eskual Herri osoak etsi-erazten zian. Eta ene galdera hau duk: zergatik ote gara gu, eskualdunok, horren nazkatu-rik? Konturatu gabe beharbada, bethirako deserriraketa gogorra nahiago diagu, are heriotza bera ere, hemen segitza baino. Zerendako? Partitu behar gorri hori, eztu-ka bitxi atxemaiten? Zerk uxatzen gaitu?

\* \* \*

Ordurako hantxe zeukaten, aurre-aurrean, bidartea; eta handixek abiatzen zen gorantz Etxepare-ra zeraman bideska. Eta gelditu egin ziren bi gizasemeak:

—Sinhets nazak. Xalbat: neure motzean, ezpainiz ni

eskola duen gizona, konprenitu uste haut. Erraiten duan hori guztia, gogor zautak biziki...

Eta arnasa hartuz bezala:

—Duela zazpi urthe. Aljeria-ko gerlakoan, Joanes ene semea ere Tizi-Ouzou-ren ondoan hil zenik bahekiena hik?

Zauskada harrigarri batek astindu zuen Xalbat-en barrumbea.

—Ez. Edo garai hartan jakin banuen ere, orai ahantzia neukean... Barkha!

Isilunea luzeegi gertatzen zen.

—Mila esker, Piarres. Mila esker anitz. Orai etxerat ari nuk...

—Kuraia ez gal, Xalbat. Ahantzi egin behar. Horixe egin diat nik ere. Bertze irtenbiderik ezpaitago mundu huntan... Ahantzi...

—Ahantzi, ahantzi —esan zuen Xalbatek—. Agian bai! Baina ni gazteago banintz, eniake soluzio hori onhartuko. Aski!!

—Ez, Xalbat. Etsi egin behar! Pasa eginen duk hori. Dena duk pasatzen, are heriotza bera ere, are hagoniaren orhoitzapena ere; are gure eskuek edo burumuinek sortu edo senditu duten gauzarik ederrena ere. Denak dituk ezabatzen. Eta gure semeen orhoitzapena ere, ezabatu eginen duk. Tristeia izanik ere, hori duk ethorkizuna, Xalbat. Eta hobe duk, segur! Bizi egin behar. Adio!

—Ez adiorik, Piarres. Gau on!

Esquin aldetik, eta patarran goiti igan ala, lerro distirante bat ikus zezakeen Dibar jaunak: zilarraidea zen, zabal xamarra, Iparralderantz desagertzen abiatua. Lotan bide zetzan Errobi ibaia. Eta Etxeparea-eneko tragedia gaitza, alegiazko lokamuts bihurtzen zen arrastiriko argitasun epel gozoan.

Xalbat gelditu egin zen bideskan. Arnasarik ezin har turik antza; eta burua gero eta lurrerantz makurtuago. Zotinka hasi ote zen? Eztulka ote? Ezin esan. Baina bat-batean, oso urrutitik, hitz hauek entzun ziren bazterretan:

—Madarikatua izan bedi nire herria!... Madarikatua izan nadin ni neu ere!... Madarikatua Euskal Herrira sortu nintzen egun hitsa!...

Baina Xalbat-en garrasi etsi hura, berehala suntsitu zen. Eta gure gizona, burua harresiaren kontra jarririk, hantxe gelditu zen luzaz eta xaguxarrak aidea gurutzatzen hasi ziren arte...

Eta ezker aldetik, eta Khanbo-ren aldetik, tartekamarteka, zaunka batzu entzuten ziren; baserrietan, dei urrunak ari; eta beheretik gora, zurrumurru urtsua Xalbat-enganaino heltzen. Errobi-ko uren xuxmur izuti etengabea zen; Bordanasa ondotik behera, itsaso mugagabearen aldera joaki.

1960-ko Irailean, Brusela

KOSMODROMO

(1969)



Egun hartan ere, goizero bezalaxe, robotak esnatu zuen CPZ-3721 hiritarra.

Hau pozik zegoen bere erosketaz. Dena esanez gero, modatik at jadanik egonagatik ere, XPT iratzargailu zaharrak ere, hori bai, Mozart-en musikaz esnatzen zuen: leun-leunki hasten zen musikatxo hura; eta, piskanaka-piskanaka, ezari-ezarian, azkartuz joaten zen soinuaren intentsitatea. Eta horretara, lotan ari zenari zauskada atsekaberik txikiena baztertzen zitzaion.

Auzoek ziotenez, ordea, zaharkitua zen tresna hura. Eta azkenean amore eman zuen CPZ-3721 hiritarrak; eta, erosi ez baina erabilketarako bahitu egin zuen XPTP iratzargailu berri bat.

Orduan bai aurrerapenaren punttan, mutilak. Musikaz gain (eta ez Mozart-ena oraingoan, konputagailu bategen moldatutako anti-harmoni saio bat baizik), XPTP berri horrek besterik ere egiten baitzuen: ohearen angelua aldatzen zuen polliki-polliki; eta, batera ere, telebista-aparatoa piztutzen. Hau, orduan txit leunki abiatzen zen, eta bere kolore biziak eta usain sarkorrak hedatzen.

Bere ohea maldan behera jartzen ari zitzaioa erreparatu zuen CPZ-3721 hiritarrak, baita bere gela hura nola musika-giroz eta usain ederrez betetzen zen ere. Jai-ki zen, beraz; eta keinu xoil batez gelako pertsianak ireki zituen. Telebista eta kosmobistako milaka antenen artetik, garden, aratz, zeru urdinak guztiz egun eder bat iragartzen zuen.

Gorritu egin zen orduan telebistaren pantaila bat-batean, eta gorri biziz koloreztatu; eta sekulako musika zaratatsua gaineratu zitzaion halako gorrite hari. Jatorri mekanikozko ahots lakar batek, horretan, handiro jakin-erazi zuen: «Telebista-saio hau, ikus-entzuleok, automatikoa da osoki, Kondairan lehenengo aldiz. Munduko Irrati-Telebistan ari garen robotok prestatua dugu goitik behera; eta HPQ-17 honi gertatu zaio orain zuei albiste hori adierazteko ohorea... Ez da hau ezer, ordea, eguneko berri nagusiaren ondoan»...

Asper-antzean entzuten zituen CPZ-3721 hiritarrak, 27 urte, berri harrigari haiek.

«...Hona hemen —ekin zuen robotak— eguneko berria: giza-lana amaitu dela. Hemendik aurrera inork ez du lanik batere egingo. Guk, robotok, Munduko Irrati-Telebistako langileria bota dugu bulegoetatik. Alferrikakoa izango bailitzateke hemendik goiti; eta betirako bakantzak hartzeko esan, eta denak joan dira. Gaurdanik, ikus-entzuleok, lanegin-behar aspergarritik jaregin dugu gizona. Lanak oro, kitto: bai gizasemeentzat, bai emazte-kientzat. Guk, robotok, hartu dugu dena geure gain.

CPZ-3721 hiritarrak orduan, guztiz goraki, hitz bakar hau jaurti zuen ingelesez: «enough!»; aski, alegia. Eta telebista-aparatoa bertan behera itzaldu zen. Horrelaxe egiten zuen egunero.

—Hamar urte badira kolperik ematen ez dudala. Hamasei urte nituenean (produzioan parte hartu behar izan nuen bolara labor hartan, beraz), egunean 23 minutuz lan egin nuen bulego elektroniko batetan. Eta geroztik, derrigorrez hau edo hura egin behar duenik inor zegoenik ere ez nekien. Bejondeiela halakoei!

Eta ohera hurbildu zen berriro; baina hau ordurako guztiz zut plantatua zen. Eta ezin 34 minutuz etzan-erazi. Telebista-aparatoak zabaldutako larrosa-usaina, bestalde, azkarregi egiten zen; eta CPZ-3721 hiritarrak urrutimenez begiratu zuen leiho zabalgaitezaren aldera:

—Haiek bai garai zoragarriak! Gure arbasoek nahi zuten guztietan irekitzen baitzituzten leihoak...

Orduan botoi urdin bat zapaldu zuen behatzaz; eta eguratsaren auto-erregulakin automatiko bat abiatu zen; eta handik piska batera, garbiago eta hozkirriago egin zen airea, are pittin batez ozonoztaturik ere.

Armairuan gordetzen zituen bere 237 soinekoen aurrean paratu zen orduan, zalantzan zenbait segundoz; eta azkenean larru-gorrian irtetea erabaki zuen. Aspaldi danik zeuden gainditurik hiri hartan nolana hiko sexu-izkurtukeria guztiak. Eta sendimendu estetikoak oro ere, programagarri ez direnez, erauziak izan ziren gizarte hartatik.

Han eta hemen, eta bazter guztietan, izkribu hau irakur zitekeen: «Errealaren guztia, logikoa da; eta logikoa den guztia, programagarria da. Hortaz, konputagailu bidez azter ezin daitekeen fenomenorik ez dago, egon ere. Konputagailuen defentsa, hitz batez, eta irrazionalkerien eta alienazioen kontrako borroka, borroka bera eta bakarra dira».

Ez da aiantzi behar, bestalde, bertako klima konputagailuen menpean zegoela; eta 28°C-tako tenperatura zutela tinko gau eta egun; eta urte guztian barrena. Eta, hori dela bide, beharrik gabeko mozorro bihurtuak zirela janzkiak.

—Aldatu egin dut neure iritzia, horra! Aski eta sobera dut besteak bezalaxe gaur ere larru-gorrian irteten. Oraintxe nago arrunkeria horretaz asperturik! Berde ilunez eta more fosforezentez jazteko gogoia dut; ezkerraldean zulo eliptikoak eta eskuinaldean zilar hutsezko taxa borobilak ageri direlarik. Neure burua horretara topatzen dut-eta barragarrienik.

Jantzi egin zen. Segituan, bi pilura bitaminatu irentsi zituen gosaritzat, eta igogailua hartu. Hamalau segundotan jaitsi zituen honek, ezinago leunki, pisuaren 218 metroak.

Ikuskari hura sinetsi-ezina zen. Gruak, zamaketan eta deszamaketan, automatikoki ari ziren. Zintzilikatutako tren isilak, berriz, gidatzailerik gabe abiatzen eta geratzen ziren; eta hiri-inguruko lantegiak (hamaika urtez geroztik, erabat aseptiko eta garbi bihurtuak) beren buruz ari

ziren lanean. Automatikuntza-beharra zela-ta, janari bakar bat prestatzen zen inguru haietan: haragi-xerra patata prejituekin. Hau, nolana ere, dohainik eskaintzen zitzairen bertako hiritar guztiei. Huts-ezinezko ospitale elektronikotan, bestalde, nolana ere eritasunak zaintzen ziren; eta jendea, istripuz ez izatekotan, oso nekez hiltzen zen. Hitz batez, jendaketa osoak, eta aurrerakoan batez ere, erabili ahal izango zuen aisia denbora guztia: egunean 24 ordu norberaren solaserako.

Autogidatutako helikopteroak ageri ziren baztar guztietan, jolas-leku honetara eta hartara edozein ordutan abiatzeko prest. Arrakastarik bat ere ez, ordea: ez zituen inork erabiltzen.

Mutil gazte batzu, bakar-bakarrik beti (nahiz bateratsu joaki), pasean antza, oinez zihoazen kai aldera. Neska gazte batzu, berriz, biluzik, alferrik baina etsipenik gabe, memento baterako amorantearen zai zeutzaten han eta hemen. Haurrik bat ere ez, eta heldu-jenderik ere ez. Hiri hartan baliozko adinetik at inor ez bizi: alegia, 16 urtetatik 30 urtetarakoak bakarrik. Gainerako hiritar guztiak, legearen arauera, «produziogabeak» zirenez, pausa-etxe berezitan bizi ziren: osasunezko kontrolpean, eta beren adinen arauera sailkaturik. Zero urtetatik bi urtetarakoak zeuden batetik, bi urtetatik lautaratakoak bestetik, etab. 30 urtetatik gorako agureek eta atsoek, berriz, bosna urtetako taldeak osatzen zituzten: 30-35, 35-40, etab. Azkeneko taldea, memento hartan, hauxe zen: 270 urtetatik aurrerako senton guztiena (pila bat, dena dela). Tal-

de bakoitzari zegozkion behar objetiboak hartzen ziren kontutan: xahututako kalori-kopurua, edarien pH-tasa, galtzarbeo tenperatura, eta antzerakoak. Eta konforrik handiena eskaintzen zitzaizen denei eta bakoitzari.

—Zer egin dezaket orain? —galdegin zion bere bu-ruari CPZ-3721 hiritarrak—. Eguzkiak hein batez itsu-zen zuelarik.

Besterik gabe gainbehera zihoalako, kairako kalea au-keratu zuen, eta beheraino iritsi. Goizegi zen.

Kai hura ikaragarri zabala zen; eta bertan mota des-berdinetako bela eta jolas-ontziak pilatzen ziren milaka. Hamar urte hartan abandonaturik zeuden batzu, hogeit-urtez geroztik beste batzu, are mende oso batez beste zen-bait.

—Zer egin nezake nik hemen honen goizik? —gal-detzen zuen bere kolkorako goizero bezala—. Ezer ez, jakina.

Eta kosmodromorik hurbilenerako helikoptero auto-gidatu bat hartu zuen. Handik minutu batzutara plane-tarteko misiloen abialekura iritsi zen (kaitik 600 km.ta-ra), erabat automatikoki. Kosmodromoan, norakorik life-rentetan barrena, hamarnaka milaka pertsona zeuden bil-durik, trumilka harat-hunatean: Koperniko-ren Ziklora zi-hoazen batzu, 47 bide-orduz; Saturno-ko Eraztunetara beste batzu, 3 urtez; Marteko Ubideetara, 10 hilabetez, etab. Eta sekulako paneltzarretan hau iragartzen zen: «Osasun-arazorik ez».

—Ez ditut jende hauek ulertzen —pentsatu zuen

CPZ-3721 hiritarrak—. Estatistikek erakusten dutenez, bidaztien arteko % 97,6-ak, asper-asper eginda hiltzen dira bidaian bertan. Gelditzen diren % 2,4 horietan, berriz, denak hiltzen dira, jakina; eta asperkuntzaz hiltzen; baina hauek helburutzat hartutako planetaren gainaldean bederen. Hortaz, hemen bertan norik bere buruaz beste egitea hobe. Edonoren eskuarrean daude hemen mila pilura ezin hilgarriago. Baina hauen erabiltzaileen kopurua murrizta da oraingoz: jaz pilura bidezko 3.200 suizidio baizik ez zen gertatu. Aldera bekioz horri bide-istripuz hil ziren 350.000-ak.

Pertsona-multzo trinkoak abiatzen ziren artean kosmorantz, berebiziko garretan, eta zarata infernu betean. Benetako munstrokeria zen hura. Eta une hartan ahots mekaniko batek urratu zituen bazterrak doinu berdinerdin batez, ondoko hau iaragartzen zuelarik:

«Kosmodromotikako irteera-estatistika, atzoko egunaz:

Ilargirantz ... ..	673	lagun
Artizarrerantz ... ..	732	»
Marterantz ... ..	2232	»
Jupiterrerantz ... ..	3812	»
Saturnorantz ... ..	14732	»
Neptunorantz ... ..	22822	»
Plutoirantz ... ..	33201	»

Orbita hiperbolikotan joanak: 136.021 lagun.

Planetetatikako itzulerak: zero».



CPZ-3721 hiritarrak orduan 1,328 ziklo-segundoko periodoaz dardaratzen zen aulki-zurubi elektronikoko bat hartu zuen (alegia, ikerketen ondorioz, bihotzaren lagungarri gertatzen zen huraxe); eta aspaldi danik ezagutzen zen edari bakarra eskatu zuen: Coca-Cola.

Erdi lozorroan zozoturik begiratzen zuen misiloen irteera etengabea. Hauen arteko indartsuenek, are mila metro gora ere bazuten. Eta dorre hegalariz osatutako alegi itxurako ikuskari harrigarri hura, nolazpait bederen jasangarria bederen bazela iruditu zitzaion; arrunt aspergarria behintzat ez zela. Han zegoen zarata maila hain azkarra izanik, hara heldu eta ordu laurdenera, deusik ere ezin entzun; eta han eta hemen piztutzen ziren garrak guztiz distirante izanik, ilundu egiten bide zen eguzkia bera. Eta kinka hartaraz gero, gainditurik gelditzen ziren giza-sen-diberatasunezko muga guztiak, eta azkenean goxo-goxo loak har zitekeen.

Eta, harako bisitaldi guztietan bezala, horixe gertatu zitzaion CPZ-3721 hiritarrari: lotan gelditu zela.

Halaz ere, eskuarki han ikusi ohi ez zena ikusi zen egun hartan.

Goizeko hamaikak hogeituz gutxi ziren. Eta horretan gazte saldo guztiz gaitza bildu zen batera kosmodromo perra. Bai populu koloretsua hura! Multzoa hurbildu ala, CPZ-3721 hiritarrak zenbait xehetasun berezi zituen. Edertasunez benetan apartak ziren neskatilek (gehienak biluzirik ibilki) argi-pankartak zekartzaten ehunka beren



besoetan, izkribu honen eramale: «Guk dena salatzen dugu. Guk salaketa bera salatzen dugu. Geronen salaketa ere salatzen dugu. Salaketaren salaketa salatzen dugu. Eta azkeneko aldiz oraingoan salatzen».

—Irrigarria da, halere —pentsatu zuen CPZ-3721 hitarrak—. Zeren-eta, halere, salatu egiten baitute. Hots, dena izan da hemen behin eta berriz mukurruraino salatua. Iraultza guztiak izan dira hemen bai hasiak eta bai bururatuak; baina gorotz piloek hortxe diraute. Alferrik gertatu dira salaketak oro.

Eta berriro ekin zion loaldiari.

Bazetorren multzo zalapartaria. Mutilak ere ederrak ziren arront, eta gehienak larru gorrian zihoazen. Baina hauek ez zuten besoetan pankarta argitsurik garraiatzen, aizkora arkaikoak baizik. Eta guztiz ozenki kantatzen beren boz-gorailuen bitartez:

—Heriotza garbia arbuiatzen dugu guk. Zatarki saraskitu nahi dugu. Edozertaz ere nardaturik eta oka-eginik gelditu diren kontzientzia soraioak berak ere, nardatu egin nahi ditugu, berriro ere oka-eragin arte. Salbatu den oihan - eskualdea ere usteltzea nahi dugu guk, eta hondakinen kiratsa zabaltzea. Geronen eskuez ebaki nahi ditugu lepoak. Eta haurren giza-atal guriak geure ukaldi zatarrez gorputzetatik erauzi; eta erauzketaren ondoko odola geure begiez nola isurtzen ari den ikusi.

Kosmodromoko osteak, halere, hura entzundakoan, ez

ziren mendrenik ere ikaratu; eta kosmorako herrenkade-  
tan zai zeuden askok eta askok, sineskaitz, irribarre egin  
zuten:

—Beti ere mehatxuka! Beti ere horiengan, izkutatu-  
rik, Erostrato eragile! Beldurtu egin nahi dituzte bazte-  
rrak, eta dena iraul-erazi; baina horregatik daude beti be-  
ren horretan, eta horregatixek ere ez dute sekula ezer al-  
datuko.

Baina espero ez zen sarraski latza mamitu zen orduan  
kosmodromoan. Leku guztietan jauzten ziren buru odol-  
tsuak. Eta baloi iletsutzat erabiltzen zituzten neskatila  
eder haiek lurrera berriak ziren buruok.

—Libertigarri gertatzen zait hau! —esan zuen histe-  
rikoki eta garrasika CPZ-3721 hiritarrak. Eta buru-moz-  
taile amorratuengana jo zuen:

—Ados naiz zuekin. Indazue aizkora bat.

—Hain zuzen ere, ez duk ados izan behar. Ezta gu-  
rekin ere. Gu geu ere —azaldu zioten— ez gaituk geure  
artean batere ados. Baina barrua bete digun herra honen-  
bestekoa izanik, bigarren mailan gelditu zaiguk gainera: a-  
guztia.

—Gorroto zaituztet —esan zuen orduan CPZ-3721-  
ek.

—Hobekixe goazik horrela —entzun-erazi zion tal-  
dekoren batek—. Dagoen guztia gorrotatu behar duk, de-  
narekiko goragalea senditu, Kondairan barrena inoxoek

ilaran asmatu dituzten askabide guztietatik at egon. Zer deritzok honi guztiari?

—Deus ez.

—Txit ongi erantzuna.

—Den-dena mespretxatzen diat osoki, eta ez diat sinesten ezta neronen sineskaiztasun horretan ere. Neure burua mespretxatzen diat, baina grinarik edo herrarik gabe mespretxatzen.

—Ongi duk. Horretara bada, gurekin etor haiteke.

Aizkora astun bat erreziebitu zuen orduan haiengandik, eta beste guztiak bezalaxe ezker eta eskuin sarraskitza errabiatuan eta lepo-mozketa eroan abiatu zen. Berehalaxe gorri bustiz blai zegoen goitik behera. Erortzen zirenen garrasiei, alderdi guztietarantz ihesi zihozenenak erasten zitzaizkien. Kosmodromoaz halako izu hotza nagusitu zen, eta misiloak hutsik abiatzen ziren zerurantz.

Hilkintza-lan hura amaitzean, konputagailu automatikoak mintzatu ziren: «Gertakarien bilduma hau izan da: 3.412 hil, 7.432 desagertu eta ihesle».

Sekulako barre-algara lehertu zen orduan gazte salataileen ostean. Eta hartatik multzo trinko bat aldenduz, «Kosmos» zeritzon amildegirantz abiatu ziren. Kosmorako irteerakoan errakuntza bat gertatu, eta izarrarteko bidaiarako misilotzar atomiko batek leher egin, eta hara malkor bitxi hura, zenbait hilabete lehenago sortua.

Amildegira iritsi zen gazteen oste koloretsua. Denak

barreka ari, honela mintzo ziren oihuka: «Ez dugu guk kirastegi aratz honetatik irten nahi».

Bazituen malkor hark seirehun bat metro gora, eta gazteen multzoa labarreraino heldu zen. Bozgorailu ñimi-ñoak, nahiz arras ozenak, zeramatzaten beren lepoetatik zintzilik; eta algarak, hartara, jasan ezinezko orroa bihurturik, zalaparta ikaragarriaren gainetik entzun zitezkeen kilometro askotan barrena. CPZ-3721 hiritarrak ere, besteek bezalaxe egiten zuen, eta isekaz, eta trufaz mukurru, ahitu arteraino egiten zuen algar.

Manifestariak, binaka sailkaturik, bi ilara eratu zituzten; kilometrotan barrena ikus zitezkeen bi ilara luze. Eta gazte eder haiek, bikoteka besarkaturik, nahiz erotismo-rik batere gabe, malkorrean behera amildu zuten beren burua.

Atzean uzten zuten populu koloretsuak, eten gabe egiten zuen barre, dardaratan bezala, amairik gabeko ez-tulaldian bezala. Eta bikoteek, amiltzerakoan, guztiz goraki entzun erazten zuten: «Guk ere den-dena salatzen dugu, gorotza salbu».

Handik ordubetera, ezer gutxi ageri zen malkorburu hartan: han-hemenka, odoleztutako aizkorak soma zitezkeen, eta utzitako pankarta batzu. Besterik ez.

Une hartan eguerdia zen zehazki. Eta bildua zuen berriro eguzkiak betiko bere distira itsugarria.

(1969-IX-Bruselan)

## AURKIBIDEA

Lau ipuin hauen inguru-giroaz ... ..	7
Orangutanaren ugartea (1957) ... ..	13
Piarres gaxoaren pasadizuak (1958) ... ..	27
Eta ez ziren sekula itzuli (1969) ... ..	35
Kosmodromo (1969) ... ..	61